

Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.eus

URTEA BUKATZERAKO HAINBAT EKITALDI BURUTUKO DIRA ELKARTEAREN ESKUTIK



LAJA, TRIKITIXAREN ZUBIA

Joxe Mari Iriondok idatzi duen "Laja, Trikitixaren Zubia" liburuaren aurkezpena egingo da **azaroaren 27an eguerdiko 12:00etan** Azkoitiko udaletxeko aretoan.

"...Elgetaren jakituria, Sakabiren soinua jotzeko zehaztasuna –notak garbi markatzea gustatzen zitzaien Lasturkoari– eta Joxe Mari Altuna musikarari azpeitiarraren trebezia ikasi eta ondu zituen, lehengo trikitilari zaharretatik abiatu eta oraingo trikitilari gazte ondo hezietara zubia egiteko..."

GEURE KOLKOTIK 2016

Abenduaren 5ean Durangoko azokan aurkeztuko da Geure Kolkotik 2016 diskoa. Aurkezpena Ahotsenean izango da eguerdiko **13:40ean** eta Xabier Etxaniz eta Itsaso Elizagoien egongo dira bertan beraien pieza berriak aurkezten. Bi trikitilari hauez gain Xabi Aburruzaga, Ander Zabaleta eta Patrik Larralde ere partaide dira disko berri honetan bakoitzak hiru-pieza berri grabatu dituelarik. Diskoa trikitixa.eus webgunean eta ohiko dendetan egongo da salgai.

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA DURANGOKO AZOKAN

Durangoko azokaren 51. edizio honetan ez du hutsik egingo Euskal Herriko Trikitixa Elkartea. Urtero bezala bertan egongo da aurtengo eta azken urteetako produktuak eskainiz.

URTE BUKAERAKO BAZKARIA

Azken urteetako ohiturari jarraituz aurten ere urte bukaerako hitzordua jarri du Euskal Herriko Trikitixa Elkartea: Abenduaren 28an bazkaria izango da Azkoitiko Laja jatetxean. Izena emateko trikitixa@trikitixa.eus helbidera idatzi edota 943 83 28 28 telefonora deitu abenduaren 19a baino lehen.

LARRINAGA, M. LARRINAGA, LARRINAGA GUERRINI...

"Zuriak eta beltzak" argazki liburuaren jarraipena eginez soinu zaharren argazki liburu berri bat osatzen ari da Elkartea. Euskal Herrian zehar hainbat txokotan barreiatuak dauden duela ia 100 urteko soinu zahar hauek identifikatu eta ezagutarazteko asmoz sortu zen liburu hau egiteko ideia eta lan horretan dihardu azken hilabete hauetan.

HAMAICA KONTUZ, HARITZ EZAGUTUZ!



ELKARRIZKETA: HARITZ GARMENDIA

Nor da Haritz Garmendia?

Azkoitian jaio eta gaur egun Azpeitian bizi den 24 urteko gaztea.

Zer dauka trikitixak berezi zuretzat?

Noan lekura noala bidelagun dut trikitixa. Hamaika festa eta auzo ezagutzeko aitzakia izateaz gain, lagun pila bat egiteko aukera eman dit.

Nola uztartzen dituzu ikasketak, bertsoak, erromeriak, juergak?

Familia eta inguruko laguntza eta eskuzabaltasunarekin. Gustatzen zaidana egiteko aukera ematen didate eta hori eskertzekoa da.

Gustura entzuten duzun kantu bat?

Kaxianoren Enaut kanta. Hitz gutxitan gauza asko esaten ditu.

Kantuak honela dio: "...gazteak non galdu du erromerirako grina..." Ados al zaude?

Egia da erromerian dabilen jendearen batez besteko adina igo egin dela azken urteetan. Kaxianok Arizterrazuko erromeriarri jarritako bertsoak dion moduan, erromeriak, festa giro sano eta euskalduna eskaintzen du. Niri eskaintza hori era-

kargarri egiten zait, eta uste dut, eskaintza hori erakargarri egiten zaion gazte mordoa dagoela oraindik Euskal Herrian.

Urola erdian trikitiaren inguruko lanketa bat egiten ari zarete trikitixa zabaltzeko helburuarekin. Nolatan sortu zen trikitigiro?

Gure bailara trikitilarien sehaska izan da urte luzez. Hainbat soinu-jole irten dira bertatik eta trikiti zaletasuna erabat sustatua dago herritarren artean. Gaur egun, gazte asko dabil trikitixa ikasten eta horietako askok maila musikal polita dute. Hala ere, trikitixa instrumentu bat baino gehiago dela ulertu behar dute belaunaldi berriek. Gure herriaren kultur adierazpen ederrenetako bat da eta ondorengoei jakintza hori transmititu egin behar zaie. Alde horretatik, belaunaldi ezberdinen arteko harremana sustatu asmoz, trikitilari batzuk elkartu eta bailarako trikitixa mugimenduari forma eta egitura ematea pentsatu genuen.

Nork osatzen duzue?

Momentuz bailarako 10-15 bat trikitizalek osatzen dugu taldea, eta hilean behin biltzen gara antolatzen ditugun ekitaldiak zehaztu eta aurrera begirako proiektuen inguruan hitz egiteko. Alde horretatik, eskertzekoa da Sanagustin Kultur-guneak eta Azpeitiko Kultur Mahaiak hasieratik erakutsi dituguten babesa.

Edonor izan daiteke bertako partaide? Zer behar da?

Urola erdiko trikitizaletasuna bultzatu nahi duen edozeinek hartu dezake parte trikitigiron. Momentuz kide gehienak trikitilariak gara, baina trikitiaren kultur ondarea herriarena den neurrian herritarren proposamen eta iritzia entzutea ezinbestekoa dela deritzogu.

Urriaren 21ean festa antolatu zenuten Azpeitian. Ze erantzun eman zuen jendeak?

Oso erantzun ona jaso genuen. Kalejiran 90 bat trikitilari ibili ginen kalez kale eta afaltzeko 150 lagun baino gehiago elkar-tu ginen. Bailarako jendeaz gain, beste eskualdeetako jendea ere etorri zen ekitaldira eta hori oso pozgarria izan zen.

Zein da aurreikusita daukazuena hurrengo ekitaldia?

Udaberrian beste ekitaldiren bat antolatzea da gure asmoa.

Amets bat?

Herri guztiek beren kultur adierazpenak garatzeko aukera berdina izatea.

NAFARROAKO III. TRIKITI JAIALDIA

Nafarroako Trikitixa Elkarteak antolatuta Nafarroako III. trikiti jaialdiaz gozateko aukera izango da urtarrilaren 7an arratsaldeko 17:30etan Altsasuko lortia Aretoan. Aurtengoan familia gai hartuta, parte hartzaile guztiak senitartekoak izango dira:

- Alkorta anai-arrebak eta Enaitz
- Etxaniz anaiak
- Laja aita semeak eta Haritz
- Elustondo anai-arrebak
- Lasa ahizpak
- NARBARTO anai-arrebak
- Etxabe anaiak

Jaialdirako sarrerak www.iortiakultura.com webgunean egongo dira salgai abenduaren 1etik aurrera (12€) edota bestela egunean bertan leihatilan. Ondotik afaria izango da Iru Bide jatetxean (20€). Afarirako txartela ere web orrian eros daiteke.

HUNTZA TALDEA: ERTZETATIK

2014an sortu zen Huntza taldea eta dagoeneko "Ertzetatik" bere lehen diskoa kaleratuko du. 12 kantu berriz osatutako disko honen sortzaileak gizpukoako 6 musikari gazte dira: Josune Arakistain (trikia eta ahotsa), Uxue Amonarriz (panderoa eta ahotsa), Aitor Huizi (biolina), Aitzol Eskisabel (gitarra), Inhar Eskisabel (bajua) eta Peru Altube (bateria). Hainbat kolaboratzaile ere izan dituzte lehen lan honetan, Uxue Alberdi, Iraitz Agirre eta Jon Gurrutxaga besteak beste. Diskoa Durangoko azokan aurkeztuko dute abenduaren 5ean eta ondoren Durangoko azokan bertan edota ohiko saltokietan egonen da sagai (10€).




JOSEBA TAPIA: LARREKO ESKOLATIK. TRIKITIXAREKIN GOZATZEKO APUNTEAK

Apunteok ikasle, irakasle eta gurasoen lagungarri izateko asmoarekin argitaratu dira, lantxo honek ez du bestelako asmorik. Lagungarri txikia eta irekia ezinbestez, Josebak bere buruari egiten dizkion galderei nolabait erantzuteko. Zer ekar genezake gaurko egoera honetara, geure esperientziatik? Onar genezake musika ez dela ume guztien barruan sartuko, baina hori ez da nahikoa arrazoi ikasle gehienak musikaren barruan ezin sarturik geratzeko. Hau ez da metodo bat, metodologia baterako pauso batzuen berri ematen duen lantxoa baizik, eta ez bakarrik modu teorikoan: liburuak erantsita daukan CDan hainbat lanketabide daude. Errepertorio berri bat sortu du Josebak solfeo eta zenbakiz lagundua; fandango arin-arin eta kalejira berriak ikasle hasi berrientzat soinua hutsean grabatuak. Partiturak interneten daude eskura www.tirikitrauki.com orrian.

XABI SOLANO MAIZA: TRIKITIXA LIBURUA 2

Xabi Solanok bere bigarren partitura liburua prest dauka dagoeneko. Ereñotzu diskoa dauka barruan, Xabik berak sortutako 14 abestiekin, eta kantu horien partiturak eransten ditu solfeo eta zenbakiz, tartean istorio txiki eta argazkiekin lagundurik. Diskoa grabatzeko hainbat kolaboratzaile izan ditu: Kepa Junkera, Joxe Goikoetxea, Kristina Solano, Aitor Zabaleta, Amaieur Kajaraville, Jon Mari Beasain, Imanol Urkizu, Arkaitz Miner, Gorka Sarriegi, David Soler e.a. Azala Udane Juaristik egin du eta liburuko argazki eta maketazioa Gaizka Peñafielek. Lan hau Elkar disketxeak eta Bozgorak elkarlanean aterako dute. Durangoko azokan 20€tan salgai egongo da. Liburuak CD-a dakar barruan, baina diskoa bakarrik erosteko aukera ere izango da 15€tan. Zuzenekoak eskaintzen otsaila-martxoan hasiko da Solano eta hainbat sorpresa prestatuta ditu iada.



ASTIASARAN ANAIEI OMENALDIA ARISTERRAZUN

Urriaren 23an omenaldia egin zitzaion Astiasaran anaiei Aristerrazun. Plazetan ez dutela erromeri gehiago eskainiko azaldu dute baina hala ere ziur ez dituztela beraien instrumentu kuttunak alde batera utziko. Txapelak eta oroitzagarriak eman zitzaizkien eta bertaratutakoek beraien trikiti doinuekin dantza egiteko aukera izan zuten.

IKER GOENAGA

16 urterekin erabaki zenuen trikitilari izango zinela. Txapelketa nagusiaren ondoren etorri zen trikiti pieza berrien txapelketa. Ze desberdintasun? gus-turago hartu zenuen bigarren hau?

"Bai. Egia esan niretzat ere joku bat zelako kantak sor-tzearena. Ez nion halako garrantzirik ematen txapelke-tari, ez lehen eta ezta orain ere. Kantu bat beste bat baino hobea dela esatea neretzat zaila da, azkenean pertsona bakoitzari zerbaitek ikutuko dio edo ez. Pieza berrien txapelketarena bai izan zen jolas bat, sortzen hasteko eta pixka bat nere burua behartu edo motiba-tzeko beste bide batzuetatik; soinuarekin ere kantak egin daitezkeela eta ez bakarrik kantu bat ondo ikasi, milioi bat aldiz errepikatu eta gero ahalik eta hobekien jo; baizik eta sortu ere egin daitekeela. Hortan bai ireki zizkidan begiak sorkuntzatik joateko."

Tolosaldeko ataria. Hauspo artean. 2016-10-18

JOSEBA TAPIA:

Proiektu berri batekin zatoz, Besamotzak taldeare-kin batera. Zertan datza?

"Nire bakarkako diskoetatik kantua zenbait hautatu, hama-lau kantua hain zuzen eta zuzeneko bat prestatu dut Besa-motzak taldekide lagunekin. Hamalau kantua, ukitu elektri-ko, rock usain, gitarra, baxua, jazpana eta guzti... Kanta ezagun baina berriak dira, aspaldikoak bezain gaurkotuak. Kantatzeko gogoia eta agertokiaren lilurak bultzaturik hemen nator indarberriturik mikrofono aurrera. Bilok urdintzen hasi zaizkit dagoeneko eta bigarren gatzaroan prest nator borrokara."

Arabako ALEA Komunikazio taldea 2016-10-03

ALTZOLAKO I. TRIKITI JAIALDIA.

Azaroaren 19an ospatu zen Altzolako I. Trikiti jaialdia. Julen Alonso eta Eneritz Aulestia, Manex Torrealdei eta Irati Gutierrez, Mikel Barandiaran eta Julene Otegi eta Aratz Olaizola eta Maria Lasa izan ziren parte hartzaileak.

"HITZ&MUSIK" ZIKLOA

Hitz&musik zikloan parte hartu zuen Fermin Muguruzak urriaren 26an Lazkaon. Bere bizitza eta musika bidea erreparatu zituen solasaldiaren ondoren 5 kantua akusti-ko eskaini zituen Eneko Dorronsoro trikitilariak eta Gurutz Bikuña gitarjoleak lagunduta.

ROMUALDA ZULOAGA

Romualda Zuloaga panderojoleak Galdakaoko kale bati izena emango dio. Euskal folklorean garrantzitsua izan zen emakumea da, euskaraz kantatzen baitzuen eta Mariano Barrenechearekin batera albokako lehe-nengo diskoa grabatu baitzuen 1967an. Galdakaoko udala emakumeen izenak bilatzen ari da etorkizunean kale eta plazei izen horiek emateko. Herritarrek bere izena kale bati jarritz jarritz omenduko dute Romualda Zulo-aga panderojolea.

HEROGLIFIKOAK


Trikitilari eta trikitizaleek ordu asko pasa behar bertan.

R π

Erromeria hasteko...



Reggae, punk, ska ta...

 & (&-D) GO